## Se convoca concurso del **cartel anunciador de las Fiestas de Álava, San Prudencio y Nuestra Señora de Estíbaliz 2018**, con arreglo a las siguientes bases:

1. El tamaño del cartel, o la reproducción del mismo, en su caso, deberá ajustarse a las medidas de 50x70 centímetros, manteniendo en todo caso la resolución suficiente para su reproducción por los sistemas correspondientes de imprenta.
2. Los textos que deberán incluirse en él serán:

   **SAN PRUDENTZIO ETA**
   **ESTIBALIZKO ANDRE MARIAREN JAIAK**

   **2018ko apirilaren 28a eta maiatzaren 1a**

   **FIESTAS DE SAN PRUDENCIO**
   **Y NUESTRA SEÑORA DE ESTÍBALIZ**

   **28 de abril 1 de mayo de 2018**

   La marca comunicacional de la Diputación Foral de Álava será incluida de oficio por la misma en la reproducción del cartel
3. Los trabajos habrán de ser inéditos y no haber sido premiados con anterioridad en ningún otro concurso.
4. Podrá concurrir a este premio cualquier persona física, con independencia de su nacionalidad o lugar de residencia.
5. Los trabajos, sin firmar, deberán ser presentados sobre un soporte rígido, con un lema al dorso, que se repetirá en el interior de una plica cerrada que contenga el nombre, dos apellidos, fotocopia del DNI o documento similar en el caso de extranjeros, domicilio y teléfono del autor o la autora. En el exterior de este sobre se consignará el lema y el concurso al que se presenta.

   En el caso de los trabajos presentados en soporte informático, éste deberá ser compatible con sistemas PC o MACINTOSH y estar acompañados de una prueba en color, tamaño DIN A-3.

   Asimismo, deberá acompañarse dentro de la plica con los datos personales, declaración jurada de que se cumple la base 3ª de esta convocatoria, es decir, que se trata de un trabajo inédito y no premiado en otros concursos.
6. **El plazo para la entrega de originales finalizará el día 6 de marzo de 2018 a las 14:30 horas.** Para los envíos por correo o transporte, la presentación del talón acreditativo de la facturación de los trabajos enviados equivaldrá a la entrega de éstos, bien entendido que, si por cualquier causa, aún de fuerza mayor, no se han recibido cuando el jurado se reúna para emitir el fallo, se considerarán excluidos del concurso. El departamento no se hace responsable de las posibles pérdidas o deterioros de los originales, ni de los retrasos o cualquier circunstancia imputable a correos o a terceros que pueda afectar a los envíos de las obras participantes.

   Tanto los trabajos como las plicas deberán ser entregados o remitidos al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, plaza de la Provincia, nº 5, 3º. 01001 – Vitoria-Gasteiz.
7. Podrán presentarse al concurso, bajo lemas diferentes, el número de trabajos que cada persona desee.
8. Se concederá **un premio único de 1.000 euros**, sujeto a la retención correspondiente.
9. El jurado calificador, designado por la diputada foral de Euskera, Cultura, y Deporte, emitirá el correspondiente fallo que será dado a conocer mediante la apertura de la correspondiente plica.

   En cumplimiento del artículo 20.5 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de mujeres y hombres, el jurado creado para la concesión de este premio tendrá una composición equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. De acuerdo con esa misma ley se considera que existe una representación equilibrada cuando en los tribunales, jurados u órganos afines de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40 por ciento, en el resto cuando los dos sexos estén representados.
10. A estimación del jurado, el premio podrá declararse desierto.
11. Por cada obra presentada se expedirá un recibo, el cual deberá ser presentado al objeto de retirar los trabajos no premiados. Pasados treinta días naturales de la fecha de resolución del concurso, sin que hubieran sido retirados los trabajos presentados, se entenderá que se renuncia a tal derecho, procediéndose a la destrucción de los mismos.
12. El trabajo premiado podrá ser utilizado en la publicitación de los diferentes actos festivos que se realicen.
13. El fallo del jurado, que será inapelable, se adoptará por mayoría simple de sus integrantes, quedando aquél facultado para la resolución de cuantas incidencias pudieran surgir en el curso de las deliberaciones
14. Quienes tomen parte en este concurso aceptan todas las condiciones que se especifican en el mismo y se someten expresamente a ellas.
15. La resolución de todas las cuestiones que puedan surgir o plantearse en esta convocatoria es de exclusiva competencia del Departamento de Euskera, Cultura, y Deporte de la Diputación Foral de Álava.

    Será de aplicación la normativa vigente, y en concreto, el marco normativo de igualdad entre hombres y mujeres, recogido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del País Vasco y en la ley orgánica 3/2007, de 22 de marzo.
16. La partida presupuestaria que ampara este gasto es la 70.1.05.73.02.226.09.06 "Fomento acción y creación cultural" del presupuesto de gastos de la Diputación Foral de Álava del ejercicio 2018.

Lege Gordailua • Depósito Legal: VI 994-2017



KARTELAREN LEHIAKETA

# Arabako jaiak

## San Prudentzio eta Estibalizko Andra Maria

**2018**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Arabako San Prudentzio eta Estibalizko Andra Mariaren 2018ko jaiak iragartzeko kartelaren lehiaketa**rako deia egiten da, oinarri hauei jarraituz:

1. Kartelaren neurriak edo, hala badagokio, haren kopiaren neurriak 50x70 zentimetrokoa izan beharko du. Betiere moldiztegiko sistemen bidez erreprodukzioa egin ahal izateko behar den adinako bereizmena izan behar du.
2. Kartelean honako testu hauek azaldu beharko dira:

   **SAN PRUDENTZIO ETA**
   **ESTIBALIZKO ANDRE MARIAREN JAIAK**

   **2018ko apirilaren 28a eta maiatzaren 1a**

   **FIESTAS DE SAN PRUDENCIO**
   **Y NUESTRA SEÑORA DE ESTÍBALIZ**

   **28 de abril 1 de mayo de 2018**

   Arabako Foru Aldundiaren komunikazio marka berak ezarriko du bere kabuz kartelaren erreprodukzioan.
3. Lanak aurretik argitaratu gabeak eta beste edozein lehiaketatan saritu gabeak izango dira.
4. Sari honetara edozein pertsona fisiko aurkez daiteke, edozein dela ere haren nazionalitatea edo bizilekua.
5. Lanak izenpetu gabe aurkeztu beharko dira, euskarri zurrun baten gainean eta atzealdean ikurritz bat jarrita. Halaber, gutun azal itxi baten barruan ikurritz hori bera ipini beharko da, eta honako hauek sartu: egilearen izena, bi abizenak, nortasun agiriaren fotokopia edo balio bereko agiri batena, atzerritarra izanez gero, eta bizilekua eta telefono zenbakia. Gutun azalaren kanpoaldean, berriz, ikurritza eta zein lehiaketatara aurkezten den adierazi beharko da.

   Euskarri informatikoan aurkezten diren lanei dagokienez, euskarri hori PC edo MACINTOSH sistemekin bateragarria izango da, eta DIN A-3 neurriko koloretako proba batekin batera aurkeztuko da.

   Berebat, norberaren datuak dauzkan gutun azalaren barruan, deialdi honen 3. oinarria betetzen dela dioen zinpeko adierazpena sartuko da; hau da, lan hori aurrez argitaratu gabea eta beste ezein lehiaketatan saritu gabea dela dioen zinpeko adierazpena.
6. **Jatorrizko lanak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 6an bukatuko da, 14:30ean.** Postaz edo garraiobideren batez bidalitako lanei dagokienez, igorritako lanak fakturatu direla egiaztatzen duen taloia aurkeztea lanak aurkeztea bezalaxe izango da. Dena dela, edozein arrazoirengatik, baita ezinbesteagatik ere, epaimahaia erabakia hartzeko biltzen denean lana oraindik jaso ez bada, lehiaketaz kanpo geratuko da. Jatorrizko lanak galdu edo narriatuz gero. Saila ez da erantzule izango, ezta postetxeari zein hirugarrenei egotz dakiekeen atzerapenaren edo beste edozein inguruabarrena ere, lanen bidalketei eragiten dietenean.

   Bai lanak bai gutun azal itxiak Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean aurkeztuko dira, edo hara bidali. Helbidea: Probintzia plaza, 5, 3. solairua. 01001 - Gasteiz.
7. Artista bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara, lan bakoitza bere ikurritzarekin.
8. **Sari bakarra emango da, 1.000 eurokoa,** dagokion atxikipena egingo zaiolarik.
9. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak izendatuko du kalifikazio epaimahaia, eta hark erabakia hartuko du. Ondoren, dagokion gutun azala irekiz jakinaraziko da erabaki hori.

   Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 20.5. artikuluan xedatutakoa betez, sari hau emateko sortu den epaimahaiak emakumeen eta gizonen osaera orekatua izango du, eta eduki beharreko gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza ekukiko dute. Lege horren beraren arabera, ordezkaritza orekatua dela ulertuko da, baldin eta lau kide baino gehiagoko epaimahai eta antzeko organoetan gizakume nahiz emakumeek gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza badute; gainerakoetan, bi sexuak ordezkatuta badaude.
10. Epaimahaiak hala erabakiz gero, saria eman gabe utzi ahal izango da.
11. Aurkezten den lan bakoitzeko jasoagiri bat emango da. Saritu gabeko lanak berreskuratzeko, jasoagiri hori aurkeztu beharko da. Lehiaketa ebazten denetik hogeita hamar egun igarotakoan, aurkeztutako lanak jaso ez badira, eskubide horri uko egin zaiola esan nahiko du, eta lan horiek suntsitu egingo dira.
12. Saritutako lana jai ospakizunak iragartzeko erabili ahal izango da.
13. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena
14. Lehiakideek lehiaketan adierazitako baldintzak onartzen dituzte eta berariaz men egiten diete baldintza horiei.
15. Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baino ez du deialdi honetan sortzen diren auzi guztiak ebazteko eskumena.

    Indarreko araudia aplikatuko da, eta, zehazki, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoa.
16. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2018ko gastu aurrekontuko 70.1.05.73.02.226.09.06 “Kultura sorkuntza eta jarduerak sustatzea” partidatik ordainduko da.

Lege Gordailua • Depósito Legal: VI 994-2017



CONCURSO
DE CARTEL

# Fiestas de Álava

## San Prudencio y Nuestra Señora de Estíbaliz

**2018**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus